

**"FUNDACIÓN ONCE-CRUE PRAKTIKA-BEKA" PROGRAMA
PRAKTIKA ORDAINDUAK ENPRESATAN,
DESGAITASUNA DUTEN IKASLEENTZAT
2020/2021 Deialdia**

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (UPV/EHU)

1. XEDEA

Fundación ONCE-CRUE beken deialdia egiten da. Xedea da praktika akademiko extracurricularren garapena ahalbidetzea desgaitasuna duten ikasleei, beren enplegarritasuna eta lanbide-etorkizuna garatuz honela.

UPV/EHUko graduatan, master ofizialetan edo berezko masterretan matrikulatuta dauden eta % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna legez aitortuta duten ikasleek praktikak egiteko 4 plaza eskaintzen dira.

Programak Europako Gizarte Funtsaren laguntza dauka, Gizarte Inklusioa eta Gizarte Ekonomikoa Sustatzeko 2014-2020 Programa Operatiboaren barruan.

2. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- a. % 33ko edo gehiagoko desgaitasun bat aitortua izatea.
- b. UPV/EHUko graduren batean, master ofizialen batean edo berezko master batean matrikulatuta egotea eta praktikek dirauten artean titulua ez eskatzea.
- c. Unibertsitate titulua lortzeko beharrezkoak diren kredituen % 50a gauditua izatea gutxienez izen-ematea egitea epea amaitzerakoan. Azkenengo mailako ikasleei emango zaie lehentasuna. Gainera, UPV/EHUko Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegia eta eskola/fakultate bakoitzak kanpoko praktika akademikoen arloan ezarritako baldintzak (I. eranskina) bete beharko dira.
- d. Enpresa, erakunde edo entitate publiko edo pribatuarekin edo praktikak egingo diren unibertsitatearekin kontratuzko harremanik ez izatea, praktiken zuzendariorde edo dekanorde arduradunak horretarako baimena eman ezean. Horretarako, behar den informazioa edo dokumentazioa eskatu ahal izango du.

3. EPEA ETA IZEN-EMATEA

Eskaria egiteko epea 2020ko azaroaren 1etik 30 arte zabalik egongo da.

Eskaria Fundación ONCE erakundearen webgunean irekitako plataformaren bidez egingo da: <http://becas.fundaciononce.es>

I eranskina discap@ehu.eus helbidera bidali behar da.

4. IRAUNALDIA

Praktiken gutxieneko iraunaldia ondoz ondoko 3 hilabetekoa izango da. Sei hilabetera arte luza daiteke, enpresa hartzaileak hala erabakiz gero. Orduategia astean gehienez 30 ordukoa izango da eta enpresaren eta bekadunaren artean adostuko da.

Praktikak enpresa handi, ETE, mikroenpresa, gizarte ekonomiaren enpresa, hirugarren sektoreko entitate eta bestelako erakunde publiko edo pribatutan egin daitezke.

5. PRAKTIKAK ESLEITZEA

UPV/EHUak beka esleituko ditu hautagaien artean, ondoko irizpideak aintzat hartuz:

- UPV/EHUko Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegia eta eskola/fakultate bakoitzak kanpoko praktika akademikoen arloan ezarritako baldintzak betetzea
- Unibertsitate ikasketetako batez besteko nota
- Desgaitasun maila
- Lehentasuna izango du antzeko laguntza ekonomikoetarako programen beste deialdi batzuetan (hau barne) beka edo diru-laguntzarik jaso ez izana

6. PRAKTIKAK EGITEKO EPEA

Praktikak 2021eko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra egin ahal izango dira, baina, betiere, hileko lehen lanegunean hasi beharko dira.

7. FUNDACIÓN ONCEren ZUZKIDURA

Fundación ONCE erakundeak praktikak finantzatzeko ditu, 600 euroko zenbatekoa emanaz hilerok. Ondokoa izango da zuzkiduraren helburua:

- a. Poltsa edo laguntza ekonomiko bat ematea parte hartzen duen ikasleari.
- b. Legeak edo bere arautegiak UPV/EHUari, praktikak kudeatzen duen erakundea den heinean, aurreikusten dizkion betebeharrak guztiak betetzea, gizarte segurantzari, zergei eta izaera orokorreko beste betebeharrak guztiei dagokienean.

UPV/EHUak beka edo ikasketa laguntzari dagokion zenbatekoa ordainduko du banketxe kontu korrante batean. Ikasleak horren titularra edo titularkide izan beharko du.

Deialdi honetan inplikaturako erakundeek ez dute praktika hauek egokitzeko edota egiteko sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko aurrekonturik, ondorioz, ez dituzte gastu horiek bere gain hartuko.

Bekaren iraunaldia beteko ez balitz, ikaslearen zein enpresaren erabakiaren ondorioz, aurrerapen handiz abisatu beharko da eta ikasleak egindako praktika egunei dagokien laguntza jasoko du.

8. PROGRAMAREN KUDEAKETA ETA EXEKUZIOA

Bekak soberan geratzeko balira unibertsitatearen batean, programa jarraitzeko batzordeak esleituko ditu itzarote-zerrenda duten unibertsitateen artean, banaketa orokorrean

aplikaturiko irizpide berberei jarraituz.

UPV/EHUaren partaidetza izango duen programaren baldintza orokorren laburpen bat baino ez dira oinarri hauek. Gatazka, desadostasun, zalantza edo erreklamaziorik balego bere exekuzioan edo interpretazioan, lehenak gailenduko dira.

Oinarri hauek sinatzen dituen errektoreordetzak behar diren neurriak hartzen ahalko ditu deialdia behar bezala garatuko dela bermatzeko, eta eskumena izango du oinarri hauetan aipatzen ez diren salbuespenezko egoerak aztertu eta baloratzeko.

Donostian, 2020ko urriaren 30ean

Txelo Ruiz Vázquez
UPV/EHUko Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordea
Vicerrectora de Estudiantes y Empleabilidad de la UPV/EHU